

ERABAKIA, 2015eko EKAINAREN 3koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, BILBOKO INGENIARITZA GETrako "KOORDINATZAILEA" LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA, 2015eko APIRILAREN 28koa, EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2015eko apirilaren 28ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2015eko maiatzaren 26ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko errektorearena (2013ko otsailaren 13ko EHAA)
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2015eko apirilaren 28ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko

prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Bilboko Ingeniaritza GETerako "Koordinatzailea" lanpostua zerbitzu eginkizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2015eko ekainaren 15eko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Bilboko Ingeniaritza GET eko Administrazio Buruari, Odontologia Klinikako Zuzendariari eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiokere gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2015eko ekainaren 3an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteché

I. ERANSKINA

Esleipenduna: ANA ISABEL MACHO YAÑEZ

lanpostua: Koordinatzailea

Lanaldia: Arautua

Erref.: F 570

Zenbatgarrena: 5

Taldea: B/C

Eskala edo kidegoa: 22

Hizkuntza eskakizuna: 3;1995/01/31

Langunea: Bilboko Ingeniaritza GET

Campusa: BIZKAIA

Ondorioetarako data: 2015eko ekainaren 15a



